

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA  
DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA

## EBROKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA

## Uren Ikuskatzaitza

**Emakida- Erriberagoitiko udalerria. Erref.: 2019-A-142**

Vicente Durán Borreguerok ur publikoen aprobetxamendu bat emateko eskatu du. Aprobetxamendu horren datuak eta inguruabarrak honako hauek dira:

## Inguruabarrak

Eskatzailea: Vicente Durán Borreguero.

Ibilgua: Baia ibaia.

Hargunearen udalerria: Pobes – Erriberagoitia (Araba).

Batez besteko emari baliokidea kontsumorik handieneko hilabetean: 0,002 l/s.

Aldiuneko gehienezko ur emaria: 5,3 l/s.

Xedea: ureztatzea.

Aprobetxamendua Baia ibaiaren ibilbidean zuzenean ura hartzean datza, hain zuzen ere, ETRS89 UTM30 X: 507475, Y: 4738278 koordenadetako puntuan. Ura 5,3 l/s-ko gehienezko ur emariko motoponpa bidez hartuko da, eta mahuka malgu baten bidez eramango da 1.000 litroko hiru tangatara, eta handik uholde bidezko ureztapenerako erabiliko da, Erriberagoitiko udalerriko (Araba) Pobes herriko 5 poligonoko 200 lurzatiaren zati bat ureztatzeko, hain zuzen ere guztira 0,1454 ha dituen lurzati osoaren 0,015 hektareako azalera ureztatzeko. Urteko gehienez ere 36 m<sup>3</sup>-ko bolumena eskatzen da.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, eskaera honek kalte egiten diela uste duten pertsona guztiek idatziz erreklamazioak aurkeztu ahal izan diezazkieten Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, hogeita bost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, eta horretarako, espedientea eta dokumentazio teknikoa ikusgai izango dira Ebroko Konfederazio Hidrografikoan(Sagasta pasealekua 26-28, Zaragoza), bulego orduetan.

Zaragoza, 2020ko irailaren 29a

*Komisarioaren ondokoa*  
JAVIER SAN ROMÁN SALDAÑA